

<p>BIHURTUKO DA ZERO (letra: Markos Gimeno; musika:PAM)</p> <p>Errutina kimikoaren bidelagun betirako paperean hustua dut makina bat boligrafo sormenari klausura egoki datorkio desertuan pasatu dut hamaika ebaluazio Berbaren medizina, jolasaren terapia gose ase ezina, burugogor tematia uneoroko mina, autoerreferentzia aldarte kontrolaezina, umore intermitentzia "Emozioen desordena" ipintzen du espedientean "espazioan kokatua, denboran ez hainbestean" palindromo bat osatzeak sortzen dit zirrara batera bat, baxua, ahotsa ta bi kitarrak</p> <p>ugari dut espero haatik bihurtuko da zero badakit</p> <p>Nire lehen zigarroa bihurtu zen ohikoa lehendabiziko paja, emakume bionikoa lehenengo rock taldea ikastolako patioan beldurra izanagatik aurrera nihoa Zerotik batera putzua infinito salto egin ezean, egingo zara ito erabaki txikiak, bizi zaren seinale ez naiz abiadura azeleratu zale baina</p> <p>ugari dut espero haatik bihurtuko da zero badakit</p> <p>mugan naiz, besoak zabalik, hankapuntetan</p> <p>Balekusa egunak ispiluan gaua ze medikaziñogaz litzake trataua</p> <p>Defendatuko dut aitaren etxeko felpudoa azpian dago giltza, zeure bihotzekoa kaotiko samarra, jario naturala zure bero beharrez hemen bota dudana eta</p> <p>ugari dut espero</p>	<p>SE VOLVERÁ CERO</p> <p>Compañero para siempre de la rutina química he vaciado numerosos bolígrafos en el papel la clausura le viene bien a la creatividad he pasado mil evaluaciones en el desierto Medicina de la palabra, terapia del juego hambre insaciable, cabezota obstinado dolor a cada momento, autoreferencia ánimo incontrolable, intermitencia de humor "Desorden de emociones" pone en el espediente "situado en el espacio, no tanto en el tiempo" me emociona componer un palíndromo una batera, voz, bajo y dos guitarras</p> <p>espero mucho aunque se volverá cero ya lo sé</p> <p>Mi primer cigarro se volvió hábito la primera paja, la mujer biónica el primer grupo de rock en el patio de la ikastola aunque tengo miedo sigo hacia adelante De cero a uno el pozo es infinito si no saltas te ahogarás pequeñas decisiones, señal de que vives no soy partidario de acelerar la velocidad pero</p> <p>espero mucho aunque se volverá cero ya lo sé</p> <p>estoy en el límite, con los brazos abiertos, de puntillas</p> <p>Si el día viera la noche en el espejo con qué medicación sería tratado</p> <p>Defenderé el felpudo de la casa de mi padre debajo está la llave de tu corazón algo caótico, flujo natural éste que he vertido aquí por necesidad de tu calor</p>
--	--

haatik bihurtuko da zero badakit mugan naiz, besoak zabalik, hankapuntetan Balekusa egunak ispiluan gaua ze medikaziñogaz litzake trataua	y espero mucho aunque se volverá cero ya lo sé estoy en el límite, con los brazos abiertos, de puntillas Si el día viera la noche en el espejo con qué medicación sería tratado
---	---

Bihurtuko da zero (“heldu... inoiz ez” 2009)

Ahotsa: Markos Gimeno

Kitarrak: Iker Saenz de Zaitegi & Carlos Balseiro

Baxua: Markos Gimeno

Bateria: Juanmi Bravo

Koroak: Iker Saenz de Zaitegi & Carlos Balseiro

<p>ERANTZUN GUZTIAK DIRA ABESTIAK (letra: Carlos Balseiro; musika:PAM)</p> <p>40 urte eta ereduari jarraitzen ikasi barik hamaika iradokizun aditu ditut nik</p> <p>Gazteek askatasunezko ametsa amestu bitartean zaharrentzat ez da gutxi lortutakoa ez galtzea</p> <p>Badira diruaren distirak legez liluratzen duten izarrak Bizia emango nuke bizitzeagatik horregatik nago hemen</p> <p>Zein zio zintzok ipiniko lizkizuke oinak lurrean? Inspirazioa ez da pribilejioa</p> <p>Zer da garrantzitsua? Ez dira handinahiak erantzun guztiak dira abestiak</p> <p>Emozioak ez daude denbora galtzeko</p>	<p>TODAS LAS RESPUESTAS SON CANCIONES</p> <p>40 años y sin aprender a seguir el modelo he escuchado miles de consejos</p> <p>mientras los jovenes sueñan su sueño de libertad para los viejos no es poco no perder lo conseguido</p> <p>hay estrellas que deslumbran como destellos de dinero. Daria la vida por vivir por eso estoy aquí qué razón sincera te pondría los pies en el suelo? La inspiración no es un privilegio</p> <p>¿Qué es lo importante? No lo son las ambiciones. Todas las respuestas son canciones.</p> <p>Las emociones no están para perder el tiempo</p>
--	---

Erantzun guztiak dira abestiak (“heldu... inoiz ez” 2009)
 Ahotsa: Iker Saenz de Zaitegi
 Kitarrak: Iker Saenz de Zaitegi & Carlos Balseiro
 Baxua: Markos Gimeno
 Bateria: Juanmi Bravo
 Koroak: Markos Gimeno & Juanmi Bravo

<p>CHECK POINT (letra: Iker Saenz de Zaitegi; musika PAM)</p> <p>Egunak argitu du atsedenik ez liburuak lepora berriz ere liburuak dira gure arma bakarra</p> <p>Etiket amarenera amaretik dendara dendatik Unira arnez lepo, beti daude hor</p> <p>Check point!</p> <p>Okupazioaren zauri zabalduak herritarren bortxatzaileak yankien begi israeldarren zelatari</p> <p>Noiz arte du honek iraungo? Nork du hesia geldituko? Hipokresiak elkartasuna estaltzen duen bitartean bizi nahi dugu! Bizi nahi dute!</p> <p>Unitik kalera kaletik osabanera osabanetik ohera liburuz kargatuta beti daude hor</p>	<p>CHECK POINT</p> <p>Amanece, no hay descanso los libros a cuestras, de nuevo los libros son nuestra única arma</p> <p>de casa a la de la madre de donde mi madre a la tienda de la tienda a la Uni siempre están ahí, armados hasta los dientes</p> <p>check point</p> <p>heridas abiertas de la ocupación violadores de la gente ojos de los yankis espías de los israelíes</p> <p>hasta cuándo va a durar esto? Quién parará el muro? Mientras la hipocresía tapa la solidaridad queremos vivir! Quieren vivir!</p> <p>De la Uni a la calle, de la calle a donde el tío de casa del tío a la cama cargados de libros. Siempre están ahí.</p>
--	--

Check point (“heldu... inoiz ez” 2009)

Ahotsa: Iker Saenz de Zaitegi

Kitarrak: Iker Saenz de Zaitegi & Carlos Balseiro

Baxua: Markos Gimeno

Bateria: Juanmi Bravo

Koroak: Markos Gimeno & Juanmi Bravo

<p>LURRUNETAN (letra: Carlos Balseiro; musika:PAM)</p> <p>Hiriaren bihotzaren gainera ekaitza Autoan sartuta, kalean. Lurruna kristaletan, babesan.</p> <p>Eguneroko bizitzaren lekuko axolagabe Jolasean, atzeko jesarlekua zikinduz.</p> <p>Dena primeran martxatrasik gabe atsedenik ez.</p> <p>Laztana, diotsut. Lehenbizikoan bezala Sutsu eta emeki Elkar igurzten Erabat desagertu arte.</p> <p>Zure irudia datorkit beti pertsona ezezagunak lez Espaloi haren ondoan datza Plazerraren aztarna.</p>	<p>EMPAÑADOS</p> <p>Tormenta sobre el corazon de la ciudad. Metidos en un coche, en la calle. Vapor en los cristales y alguna precaucion mas.</p> <p>Testigos inconscientes de la vida cotidiana. Jugando a patinar, ensuciando el asiento trasero.</p> <p>Todo va bien sobre ruedas. Ni marcha atras ni descanso.</p> <p>Te llamo cariño, como la primera vez, con fuerza y sin ruido. Frotandonos hasta borrarnos por completo</p> <p>Tu recuerdo siempre vuelve a instalarse como las personas desconocidas. Junto a aquella acera queda la huella del placer.</p>
---	--

Lurrunetan (“heldu... inoiz ez” 2009)
Ahotsa: Iker Saenz de Zaitegi
Kitarrak: Iker Saenz de Zaitegi & Carlos Balseiro
Baxua: Markos Gimeno
Bateria: Juanmi Bravo

<p>AITZURRA (letra: Carlos Balseiro; musika: PAM)</p> <p>harriek egingo dizute gosea ahaztu arazi berunak ixilduko du sabelaren orroa hormigoiaren azalean ez da jatekorik asfaltoak aurrera egiten du lurra estaliz</p> <p>zer eraikiko dugu urdailak betetzeko? letxugak fabrikatuko?</p> <p>despentsa beteta aitzurra eskuan besoetan izerdi freskua</p> <p>jakin nahi dut nola landatu humanitate apurtxo bat nire etxe ondoan progresuak lagatako lur sailetan</p> <p>zer da makroekonomia? denerako soluzioa hainbat mundu txikirentzat merkatalgunean</p>	<p>LA HAZADA</p> <p>las piedras harán que olvides el hambre el rugido de tus tripas se callará con plomo</p> <p>en la piel del hormigón no hay comida el asfalto avanza cubriendo la tierra</p> <p>¿qué construiremos para llenar los estómagos? ¿fabricaremos lechugas?</p> <p>la despensa llena la hazada en la mano sudor fresco en los brazos</p> <p>Quiero saber cómo sembrar un poco de humanidad en los terrenos que el progreso ha ido olvidando junto a mi casa</p> <p>¿qué es la macroeconomía? La solución a todo para tantos mundos pequeños en el centro comercial</p>
---	--

Aitzurra (“heldu... inoiz ez” 2009)

Ahotsa: Carlos Balseiro

Kitarrak: Iker Saenz de Zaitegi & Carlos Balseiro

Baxua: Markos Gimeno

Bateria: Juanmi Bravo

EUSKARA ZIKIÑA
(letra: Irati Jiménez; musika PAM)
[EUSKARA ZIKINA -2008/04/24an Berrian Irati Jiménezek](#)

Euskara zikiña (“heldu... inoiz ez” 2009)
Ahotsa: Iker Saenz de Zaitegi
Kitarrak: Iker Saenz de Zaitegi & Carlos Balseiro
Baxua: Markos Gimeno
Bateria: Juanmi Bravo
Koroak: Markos Gimeno & Juanmi Bravo

<p>ZUREA? BAI, ZERA! (letra: Iker Saenz de Zaitegi; musika: PAM)</p> <p>Eskina horretan zagoz presa berri baten bila asmoak jokoan dagoz ta zure begiek bira</p> <p>“Nirea, nirea, nirea da!”</p> <p>Mugimenduak ikasiak dira hatsek egin dute topo esku luzeak doaz gerrira ta barrakoa ez da oztopo</p> <p>“Nirea, nirea, nirea da!” Zurea? Zurea? Bai, zera!</p> <p>“Begi hoiak neriak nahi ditut ezpain goxoak baita ere” “Indar guztiak neriak nahi ditut erasoei egiteko aurre”</p> <p>Kolpeak arrapalan doaz gorputza lurrean Txistuak geziak bezala gorputza lurrean</p> <p>Eskina horretan gagoz garagardo bana orain bai esan ahal dotzut maite zaitut laztana</p> <p>muxuak goxoak dira giroa garbia be bai eskutik elkar lotuta bagoaz etxera, ohera</p>	<p>TUYA? ANDA YA!</p> <p>Estás en esa esquina en busca de una nueva presa juego de intenciones y tus ojos se giran</p> <p>“Es mia, mia, mia!”</p> <p>Movimientos aprendidos se topan los alientos manos largas a la cintura y el de la barra no es obstáculo</p> <p>“Es mia, mia, mia!” Tuya? Anda ya!</p> <p>“Quiero esos ojos y tambien esos labios” “Quiero todas las fuerzas para hacer frente a las agresiones”</p> <p>Los golpes se suceden el tipo en el suelo Escupitajos como flechas el tipo en el suelo</p> <p>Estamos en esa esquina con dos cervezas ahora sí puedo decirte te quiero, cariño</p> <p>los besos son dulces el ambiente es limpio vamos de la mano a casa, a la cama</p>
--	---

Zurea? Bai, zera! (“heldu... inoiz ez” 2009)
 Ahotsa: Iker Saenz de Zaitegi
 Kitarrak: Iker Saenz de Zaitegi & Carlos Balseiro
 Baxua: Markos Gimeno
 Bateria: Juanmi Bravo

<p>PSIKOTRAUMATIZATUA (letra: Carlos Balseiro; musika: PAM)</p> <p>Deabrua daukat barnean Buruan bueltaka Pentsamenduak pozoituz</p> <p>Nire espazioa lapurtuz inguratu, erasotzen naute Ezin komunikatu</p> <p>Arazoak eta etsaiak besterik ez dut ikusten babestu nahi baina mina eragiten dut amorrua baino ez naiz.</p> <p>Psikotraumatizatua Laga ihes egiten Ez dakit egiten atzera psikotraumatizatua</p> <p>Gorrotoak lotzen nau Elkarrekin egin dugu barre askotan eta gaur, zio barik ezin zaituztet jasan Bai, zuek errudun egiten didazue traba nahi gabe traba</p> <p>Hau guztia pasatzean inor geratuko ote da datorren ekaitzaren zain</p>	<p>PSICOTRAUMATIZADO</p> <p>Tengo al demonio dentro dando vueltas en mi cabeza envenenando mis pensamientos</p> <p>Me rodean y me atacan robandome el espacio no me puedo comunicar</p> <p>No veo más que problemas y enemigos me quiero proteger pero hago daño no soy más que rabia</p> <p>Psicotraumatizado Dejadme escapar no sé volver atrás psicotraumatizado</p> <p>El odio me ata hemos reído juntos a menudo y hoy, sin motivo no os puedo soportar Sí, vosotros sois los culpables me estorbais sin querer me estorbais</p> <p>Cuando pase todo esto ¿quedará alguien a la espera de la próxima tormenta?</p>
---	---

Psikotraumatizatua (“heldu... inoiz ez” 2009)
 Ahotsa: Markos Gimeno
 Kitarrak: Iker Saenz de Zaitegi & Carlos Balseiro
 Baxua: Markos Gimeno
 Bateria: Juanmi Bravo
 Koroak: Iker Saenz de Zaitegi & Juanmi Bravo

HELDU... INOIZ EZ
(letra & musika: Carlos Balseiro)

tuve un sueño
te vi en él
llorando
¿por qué?

sigo fiel
a mis recuerdos
¿qué tiene el misterio?
¿qué nos impulsa?

necesito
tu perdón
como el amor que ayer pedía
y no recibí

y así fue
la lucha eterna
entre la luz
y la oscuridad

la llamada de la soledad
no te duermas
vigila

Heldu... inoiz ez (“heldu... inoiz ez” 2009)
Ahotsak: Carlos Balseiro & Zaloa Urain
Sampler: Itoiz-en “Goizeko deiadar”